


*El Pobaleko
burdinolak ateak
ireki dizkie
ikasleei*

/4. orrialdea



*Udalbatzak
aurrezte
energetikoa
bultzatuko du*

/2. eta 3. orrialdeak

*400.000 euro
enplegua
sustatzeko*

/3. orrialdea

*Auzoetako
espaloiak eta
sarbideak
berritzeko lanak*

/5. orrialdea

*Muskizko
Eskubaloi
Kluba, historiaz
beteriko 45 urte*

/6. orrialdea

Editoriala

Aurrezte energetikoa bultzatzen dugu

Ingurumenarekiko errespetuak eta zaintzak arduratzen gaitu. Abian jarritako ekintzetako bat Alkateen Itunaren EIEP katalogora (Energia Iraunkorrenko Ekintza Planak) gehitzea izan da, klima-aldaketaren kontrako borrokan udalaren esku tresna espezifikoak jartzeko asmoarekin. Ekimen honek Muskizen dagoeneko geureganatu dugun helburua dauka: aurrezte energetikoarekin loturiko neurri eta jarduerak bultzatzea. Ekimen horien barruan, EEEren diru-laguntza eskuratu da, eta beste laguntza bat jasotzea espero dugu, 240.000 euro eskuratu arte, udal eraikinak ingurumenari begira eraginkorra den teknologiaz hornitzeko. Diru horrekin, kaleko argiak LED argien ordeztatzeko asmoa dugu, baita udal instalazioetako berogailuak berogailu eraginkorragoen ordeztatzeko ere. Era horretan, helburu bikoitza lortuko dugu: dirua aurrezte eta CO₂ isurketak murriztea.

Gizartearen alde egiten dugu lan

Udalaren beste kezka nagusietako bat behar handiena duten pertsonen zaintza da oraindik ere. Horretarako, GHEE zerbitzua jarri dugu abian berriro. Zerbitzu hori haurtzaroari, gazteriari, familiei eta arrisku nahiz bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzendutako laguntza teknikoko eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzeko udal programa da. Horrez gain, 12.000 euro bideratuko ditugu laguntza ekonomiko zuzenak emateko egoerarik ahulenean dauden kolektiboetako zuzenduriko programa eta jarduerak garatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeei.

Eta enplegua

Ez dugu ahaztu zer arazo handia den lan falta Muskizko familia askorentzat. Beraz, Forlanekin elkarlanean berriro ere, 400.000 euro bideratu ditugu, udaleko langabeen kontratazioa, prestakuntza eta autoenplegua sustatzen duten programa eta ekimenak bultzatzeko.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



EIEPrekin bat egitea, aurrezte energetikoa bultzatzeko

Alkateen Itunaren EIEPren Katalogoa (Energia Iraunkorrenko Ekintza Planak) Europako Batzordeak sustatutako ekimena da, eta bere helburu nagusia aurrezte energetikoarekin loturiko neurri eta jarduerak bultzatzea da. Udalak Itun honekin bat egitea erabaki du, klima aldaketaren kontrako borrokan, tresna espezifikoekin hornitzeko asmoarekin.

Martxan jarri beharreko lehen neurrietako bat ekintza plan bat gauzatzea da, eta, bertan, CO₂ emisioak %20 murriztea lortzeko ekintza zehatzak jasotzea aurreikusten da, EBk 2020rako ezarritakoa baino helburu handiagoa, alegia. Horretarako, halaber, ebaluazio, jarraipen eta kontrol txostenak egingo dira bi

urterik behin. EIEPrekin bat eginez, Udalak aurrera egingo du, eta plangintzarako tresna espezifikoekin hornituko da, klima aldaketaren kontrako borrokan. Hain zuzen ere, Tokiko Agenda 21 programa abiarazi ondoren egingadako Sintesi Diagnostikoan txarren baloraturako alderdietako bat izan zen hori, izan ere, begi bistan gelditu zen udalerririk ez zuela energia iraunkorren erabilera sustatzeko ordenantzarik edo ekintza planik.

Bat-egite honekin, hutsune horiek arintzen hasteaz gainera, Muskizek "Energia Egunak" antolatuzko, Ekintza Planaren garapenaren berri emateko eta Europar Bata-suneko alkateen urteko hitzaldira joateko konpromisoak hartzen ditu.

GHEE zerbitzuaren kontratazio espedientea onartu da

Udalbatzak onartu egin ditu Gizarte Ekintza Sailaren menpe dagoen GHEE (Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzarako Ekipoa) zerbitzuaren kontratazioaren baldintza-orriak. Zerbitzua, gainera, 2014. urtean berriro beharra dago. GHEE haurtzaroari, gazteriari, familiei eta arrisku nahiz bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzendutako laguntza teknikoko eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzeko udal programa da.

Zerbitzu honen lizitazioarekin batera, gaitasun murriztua duten pertsonen

garraioa esleitzeko baldintza-orriak onartu dira. Proiektu bi hauen amaierako zenbatekoa 578.000 eurokoa da, esleipenak iraungo duen bi urteetarako. Esleipen irizpideen artean, Udalak enpresa hautagaien proposamen ekonomikoekin garrantzirik handiena ematea erabaki du. Arduradun politikoei kapitulu espezifikoak gehitu dute, proiektuei baldintza-orrietan jasotzen diren zerbitzuen aldean hobekuntzak ekar litzaketan balioes-terko -betiere, irizpide subjektiboaren arabera-.



Egokitutako garraio zerbitzuaren lizitazioa

Udalak gaitasun urriko pertsonen garraio zerbitzua kontratatzeke baldintza-orriak onartu ditu, hurrengo bi ekitaldietarako. Lehiaketa 352.000 euroan irten da. Zerbitzua oztopo arkitektonikoak gainditu behar dituzten herritarrei zuzendurik dago, hain zuzen ere, euren kabuz ibili ezin diren eta joan-etorrietako egokitutako ibilgailu baten laguntza behar dutenei.

2012an egon den asistentzia-balantzeak erakutsi duenez, erabat finkaturik dagoen zerbitzua da. Joan den ekitaldian, guztira egindako bidaiak 11.847 izan dira, eta horietatik %65, eguneroko esku-hartzeak izan dira. Gaurdaino 8 plazako ibilgailua egon da, minusbaliotasunen bat duten pertsonak eta gurpil-aulkiak garraiatzeko egokitutako eta homologatutako ibilgailua; halaber, GPS/GPRS -kokapenaren berri denbora errealean izateko- eta eskala mugikorra -gurpil-aulkiekin oztopo arkitektonikoak gainditzeko- ere baditu.



Aparkalekuen berrantolaketa

Udalak Pobeñako eta San Juan plazako aparkalekuak berrantolatzeko aurreikusi du, ibilgailuak aparkatzeko azalera ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Aparkalekua margotu eta mugatu ondoren, Pobeñak 66 plaza berri izango ditu (aparkatzeko %43ko leku gehiago), eta San Juan plazan ibilgailu-zirkulazioa ordenatuko da. Ekintza horien amaierako aurrekontua, guztira, 16.600 eurokoa da.



EEEk 166.000 euro emango ditu, eraginkortasun energetikoko neurriak har ditzaten Muskizen

Energiaren Euskal Erakundeak 166.545 euroko diru-laguntza eman dio Muskizi, udal eraikinak eta udalerrria bera ingurumenarekin eraginkorra den teknologiaz hornitzeko ekintzetan gauzatu beharreko inbertsioari aurre egiteko. Hala ere, udal arduradunek aurreikusitakoaren arabera, erakundeak 74.485 euroko beste diru-laguntza bat onartuko du, harik eta 240.000 euroko zenbatekora heldu arte. Udalak, lehendabizi, udalerrriaren erdiguneko -El Crucero, La Cendeja eta San Juan industrialdea- farolak ordezkatzeko erabaki du, eta, horien ordez, LED motakoak jartzea. Horretaz gain, eraikin publikoetako galdarak aldatuko ditu, eta horien ordez bai ekonomiari dagokionez bai ingurumenari dagokionez eraginkorragoak diren gailuak jartzea erabaki du. Ondoren, udalerriko ponpategiak berrituko dira. Muskizek helburu bikoitza dauka: aurrezte ekonomikoa eta anhidrido karbonikoaren emisioak murriztea.

Muskizek 400.000 euro bideratuko ditu enplegua sustatzeko

Udalak, Forlan Toki Garapenerako Agentziarekin elkarlanean, 400.000 euroko zenbatekoa bideratuko du, udalerrian langabezian dauden pertsonak kontratatzea bultzatzen duten programak eta ekimenak sustatzeko. Zenbateko horri 45.000 euro gehitzea espero dute, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzei esker. Muskizko Udalak emandako diru kopurua 2013ko ekitaldiko Diruzaintzaren soberakinetik ateratakoa da.

Funts hau prestakuntza sustatzeko, autoenplegurako proiektuak diruz laguntzeko eta udalerrian langabezian dauden herritarrak aldi baterako kontratatzeke tokiko enplegu plan berria sortzeko erabili nahi da. Azken urteotan garatutako programa ezberdinen bitartez, Muskizko 115 langabe kontratatzea sustatu da, eta horietatik 19 lanean egon dira abuztuan. Laneratze politiketan egindako inbertsioa, guztira, milioi bat eurokoa da, gutxi gorabehera.



Hezkuntza tailerrak El Pobaleko burdinolan

El Pobaleko burdinolak berriro ireki ditu ateak, EAE osoko ikas-tetxeetako ikasleek bertako instalazioetan egiten diren jarduerak ezagutu ditzaten; izan ere, El Pobaleko burdinola burdinaren museo bizia da. Bisitariak, errota eta burdinola bera bisitatzeaz gainera (forjaketa erakustaldia ikusiko dute zuzenean), ogia, taloa eta burdina nola egiten diren erakutsiko dituzten hainbat tailerrez gozatu dute. Ikasturte honetan, berritasun nagusi bat dago; programa honi esker, ikasleek Muñatonesko Gaztelua bisitatu ahal izango dute, urrian, maiatzean eta ekainean. Jarduera hau Erdi Aroko gertaerak eta ohiturak ezagutu ditzaten pentsatu da.



N-634 errepideko biribilgunerako baldintza-orriak onartu dira

Udalak onartu egin ditu Kultur Etxearen parean dagoen N-634 errepidean biribilgune bat eraikitze lanen esleipenaren baldintza-orriak. Aurreikusienez, lan hauek betearazteko epea 11 hilabetekoa izango da, eta amaierako aurrekontua 2.750.000 eurokoa izango da. Udalak enpresa esleipenduna aukeratzeko gehien baloratu duen baldintzetako bat izan da enpresak langabezia dauen udalerriko pertsonak kontratatuko dituela, gutxienez, lanetarako aurreikusi den epearen erdian. Lan hauek Muskizko udalerriko zirkulazioa arintzeko proiektuan aintzat hartutakoa da, eta Dados jatetxearen parean kokatutako semaforo biren osagarri da.



Muskizko XXXI. Nekazaritza Azokak arrakasta handia izan du, bai jende aldetik bai erakusketarien aldetik

120 erakusketarirekin, bisitari ugariarekin eta Gatikako Txoñe Upeltegiari Bizkaiko Butroi Txakolinari Urrezko Domina eman ondoren, Muskizko XXXI. Nekazaritza Azoka amaierara heldu da. Udalak, ekitaldi honen babesle bakarra den aldetik, arrakastatsutzat jo du tokiko abeltzainekin eta baserritarrekin egiten den Ezkerzaldeko eta Meatzaldeko hitzordurik garrantzitsua.



Txakur erakusketa

Uztailaren 14an Muskizko 49. Txakur Erakusketa Nazionala ospatu zen. Donibane-ko frontoiak lehen aldiz hartu zuen bere mailan garrantzitsuenetakoa den hitzordu bat. Hainbat herritatik etorritako arraza ezberdinetako 200 alek eman zuten izena. Ekitaldi honek udalerraren irudia Europako beste herrialde batzuetan sustatzen lagundu du, turismoari dagokionez.



Auzoetako espaloiak berritzea

Hurrengo lanak: El Vallerako sarbidea eta Gibatik Santeliceserakoa

Udalak 41.000 mila euro inguru inbertituko ditu Giba auzoa eta Santelices lotzen dituen espaloiak berritzeko, bai eta El Vallerako sarbidekoak ere. Ekintza biak Muskizko auzoetako irisgarritasuna hobetzeko udal planaren barruan daude sartuta.

Lehenengo kasuan, baldosa jarriko da eta zintarriak beharretako dira, ibilgailuen sarbidea errazteko. El Valle auzoan, berriz, hormigoi estanpatuko espaloia birgaituko da, eta saretoak jarriko dira etxebizitzaren sarbideetan, euri-urak bildu ahal izateko.



600 parte-hartzaile II. Mello Sarian

Jokin Lizeaga eta Montse Vázquez nagusitu ziren irailaren 22an (igandea) jokatu zen II. Mello Sarian; lasterketan korrikalari eta ibiltari ugari hartu zuten parte. Beste alde batetik, Ander Martínez Ruizek eta Ixone Zalbide Garcíak lehen postua eskuratu zuten, martxako herriko sailkatuen artean. Parte hartu zuten ia 600 pertsonen eguraldi ezin hobea izan zuten probak honek dituen 25 kilometroak egiteko; lasterketaren kotarik garaiena Mello mendiarena da, 626 metroko garaierara. El Cerro kirol elkarteak babesleei eta laguntzaileei eskertu nahi die gorabeherarik izan ez zuen jardunaldi batean izandako partaidetza ordainezina.



Hobekuntzak La Glorietako Parkean

Haurrentzako guneak hobetzeko jardueren barruan, Udalak La Glorietako haur parkea (San Juan auzoan) berritzea aurreikusi du, eta, horretarako, itxitura perimetrala instalatuko du, kautxuzko zorua tonu alaiagoko zoru seguruagoa den beste batekin ordezkatuz. Halaber, espazio hauetarako egokiagoa den seinaleztapena jarriko da. Lan hauek, gutxi gorabehera, hilabete iraungo dute, eta amaierako aurrekontua 13.000 eurokoa izango da.



La Camparako sarbide berriak

Udalak La Campa auzoa urbanizatzeko lanak esleitzeko prozesua abiarazi du. Lan horien barruan, besteak beste, auzora sartzeko bideak berritzea, euri-urak biltzeko kanalizazioak ordezkatzea eta inguruan dauden 7 etxebizitzak hornitzeko sarea eraikitzea daude. Lan hauek betearazteko aurreikusitako epea hilabetekoa da gutxi gorabehera, eta amaierako aurrekontua, berriz, 65.000 eurokoa. Ekintza hau udalerriko auzoetarako sarbideak hobetzeko proiektuen barruan aurreikusi da; auzoak Oyankas-Laureta, Mello, Arenao eta La Cadena-La Rigada dira.



EL KAR RIZ KETA

Muskizko Eskubalo Kluba: neskak geldiezin daude

Muskizko Eskubalo Kluba 1968. urtean sortu zen, gaur egun taldeko presidentea den José Antonio Peñaren eskutik. Helburu nagusia futbolaz bestelako kirol jarduera bat sustatzea zen. Historiaz beteriko 45 urte hauetan, gizonezko taldeek Bizkaiko hainbat txapelketa irabazi dituzte. Baina, gaur egun, neskak dira arrakasta nabarmenak lortzen ari direnak, eta Lehen Maila Nazionalera igotzeko fasea jokatzeke itxaropena dute.

G/ Muskizko klubik antzinakoenetakoa zaretela esan genezake?

E/ Harrotasunez esan genezake herriko bigarren kirol elkarterik zaharrena gara. Eta, gainera, historiaz beteriko 45 urte hauetan, oraindik jardunean dabilen beste klub batzuk sortzen lagundu dugu, atletismokoa edo saski-balo taldea kasu.



“Klubeko Zuzendaritza Batzordeak eta jokalariek ekonomikoki laguntzen dute

G/ Zeintzuk dira zuen kirol asmoak, denboraldi honetarako?

E/ Emakumezko talde biek, hau da, kadete eta jubenil taldeekin, Euskal Ligara igotzeko asmoa dugu. Seniorrekin, berriz, Lehen Maila Nazionalera igotzeko fasea jokatzea ahalbidetuko digun posturen bat lortzea nahiko genuke. Beste alde batetik, gizonezko seniorrek azken urtean izandako hobekuntza berretsi nahi dugu, eta sailkapenaren goi postuetan egon nahi dugu. Eskola-kirolean, berriz, prestakuntza da helburua: garapen eragilea eta dibertsioa bilatzen ditugu.

G/ Zeintzuk dira taldeak dituen arazo nagusienak?

E/ Arazo larriena ekonomikoa da. Kanpotik zetozen diru-laguntzak nabarmen murriztu direnez, gure egitekoari eutsi nahi badiogu, zuzendaritza batzordeak eta klubeko joka-

lariek ahalegin handia egin, eta gure aldetik dena eman beharko dugu.

Gure aurrekontuaren %65 guk geuk sortutakoa izatea lortu dugu, loteria salduz, jailetan txosna jarritz, etab.

G/ Badago harrobi nahikorik ekiptoak egiteko, edo baduzue arazorik zentzu horretan?

E/ Oraindik arazo larriak ditugu gizonezko taldeak osatzeko orduan, izan ere, futbolak arrakasta handia dauka mutilen artean. Baina, neskekin orekatzen dugu egoera hori, izan ere, gero eta neska gehiago animatzen ari dira eskubaloian aritzera.

Muskizko Eskubalo Kluba bere presidente José Antonio Peñari eskertu nahi dio klubak sortu zenetik egiten ari den lana.

Muskizko Udaleko VIII. Argazki Lehiaketa

Udalak, Gaztegunearekin elkarlanean, Muskizko Udaleko VIII. Argazki Lehiaketan lanak aurkezteko epea ireki du. Gainera, 925 euro banatuko dira, saritan. Argazkiak aurkezteko epea azaroaren 8an amaituko da, 14:00etan, eta epaimahaiaren erabakia hila-bete horretako 29an jakinaraziko da. Aurreko edizioen moduan, lehiaketa honek kategoria bi izango ditu, gazteena (21 urte baino gutxiago dituztenek parte hartuko dute bertan) eta orokorra. Argazki lehiaketa honek ez du gai zehatzik izango, eta 150 euro banatuko dira saritan, tokiko artistek egiten dituzten argazkiak saritzeko.

**VIII. ARGAZKI LEHIAKETA
VIII CONCURSO FOTOGRAFICO
MUSKIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE MUSKIZ**

PARTE-HARTZAILEAK / PARTICIPANTES
Lehiaketa parte hartu nahi duten guzientzat dago irekita, bi kategoria hauen barruan
Gazteen kategoria: 12 urteetik 21 urtera
Kategoria orokorra: 22 urteetik gora

El concurso está abierto a todas las personas que quieran participar englobados en dos categorías.
Categoría joven: 12 - 21 años
Categoría general: a partir de 22 años

GAIA / TEMÁTICA
Argazkien gaia librea izango da.
El tema de las fotografías será libre.

PREMIOS / SARIAK
Categoría General / Categoría Orokorra
1º Premio: 300 €
2º Premio: 150 €
3º Premio: 100 €
Accésit mejor foto artista local: 100 €

Categoría Joven / Gazteen Categoría
1º Premio: 150 €
2º Premio: 100 €
3º Premio: 50 €
Accésit mejor foto artista local: 50 €

**BASES Y HOJA DE INSCRIPCIÓN
ONARRIAK ETA EMATEKO INPRIMAKIA**
www.muskizkogaztegunea.blogspot.com

INFORMACION
Gaztegunen Plaza Meatzari
Tfn. 94 670 8037
gaztebulegoa@muskiz.com

MUSKIZKO GAZTEA

Gizarteratze proiektuetarako diru-laguntzak

Udaleko Gobernu Batzordeak laguntza ekonomikoak ematea onartu du, 12.000 euroan. Laguntzak irabazi asmorik gabeko erakundeei emango zaizkie, egoerarik ahulenean dauden kolektiboen prebentziora eta gizarteratzerazuzenduriko urteko programak edota izazera sozialeko jarduerak garatzeko. Deialdi honetan parte hartzeko nahitaezko baldintza da erakunde eskatzailea Muskizkoa izatea, eta erakundearen jarduerak batez ere udalerrian gauzatzea. Gehien balioetsiko diren esleipenbaremoak hurrengoak izango dira: jardueraren irismen soziala, kolektibo hartzaileen kopurua eta aniztasuna, jorratzen diren helburuen barietatea eta erabilitako baliabideak.